

BERRIGARA

2. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1995, martxoak 3

Maltzaga-Urbina proiektua ikusgai



CITROËN ZX



CITROËN

ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27



Hil honetan, **ESKAITZA**
DISDIRATSUAK aurkituko dituzu gure
modeloetan. Bisita gaitzazu eta proba
itzazu 95ko **CITROËN** auto zoragarriak!!



CITROËN XANTIA



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENG OA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tiroa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

ARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tiroa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberebizbar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberebizbar
Esteban Plazaola
Alex Labaien
Maki Eraña

Komikiak:

Bitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugaldede

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.800 ale.

Inprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


LORENTZO LASKURAIN Udaleko Estatistika arduraduna

**- Biztanleen Udal Erroldak gora ala behe-
ra egin du 1994an?**

- Aurreko urtean baino 35 biztanle gutxiago ditugu. 1994eko urtarrilaren 1ean 15.776 biztanle ziren eta 1995eko fetxa berean, berriz, 15.541 biztanle, 7.786 emakumezko eta 7.755 gizonezko hain zuzen ere. Urtebete horretan 115 haur jaio dira eta 106 pertsona hil dira Bergaran. 148k alta hartu dute Udalan eta beste 208 beste udalen baten erroldatu dira. Azkenik, aipatu atzerritik 10 etorri direla eta beste batek atzerrira alde egin duela.

**- Noiz izan ditu Ber-
garak biztanle gehien?**

- Gure datuen arabera, 1979an, 17.153 biztanle. Baina orduan ekibokazi-



oak errezago ziren. Orain, teknologia berriekin eta ordenadoreekin askoz ere fidagarriagoak dira datuak. Beste fetxa batzuk aipatzekotan, 1900ean 6.196 biztanle ziren, 9.499 1940an, 13.162 60an, 15.148 70ean, 16.049 80-81ean eta 15.745 90ean. Azken urteetan kopuru horren inguruan gabilta, baina aurten iaz baino gutxiago gara.

**" Aurreko urtean baino 35 biztanle
gutxiago ditugu Bergaran "**

I T U R R I O N E T I K

Tenis pista bat egingo da Kiroldegiaren kanpokaldean

Udal Kirol Zerbitzuak tenisko pista bat egingo du Labegarrietako Kiroldegiaren kanpoaldean, azkenaldian horrelako pista bat egiteko jasotako eskaerei aurre egiteko. Dagoeneko hiru etxeri eskatu zaie jarri beharko litzatekeen sarearen aurrekontua eta presupuestoa onartu bezain laister tenisean jokatu ahal izango da Labegarrietan. Bertan markatuta dagoen tenis pista 4 metroko altuerako sare batez inguratuko da. Aipatutako sare hori kendu egingo da beharren arabera eta beste kirolen bateko partiduak izaten direnean. Bi hilabeteren epean teniseko pista prest egon liteke.

E S A N D U T E

"Ez naiz aurkeztuko udal hauteskundeetan HBko zerrendetan. Epe bat bukatu dut eta uste dut badela jende berria sartzeko ordua. Berriztea beti da interesgarria. Dauzkadan kargu publikoak ere lagatzeko asmoa daukat, baina HBren barruan jarraituko dut lanean, gaur egun daukagun gatazka amaitzen ez den bitartean"

JOSE LUIS ELKORO
HBko Mahai
Nazionalakoa
EGIN

"Hasierako harridura eta kaosaren ondoren azpimarratzekoa da sorospen zerbitzuak eta Ertzaintzak eskaintako laguntza azkar eta efikaza, eta nire eskerrik beroenak Azitaingo bizilagunei egin zuten lanagatik, zaurituak eramaten, mantak, jarlekuak, burukoak eskainiz, telefonoz laguntza-zentruetara deitzen edota familiakideekin harremanetan jartzen. Eskerrik asko eibartarrei"

ROMAN URIARTE
Azitaingo istripua jasan zutenetakoa
EL DIARIO VASCO



LA MASCARA
Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



UN GOLPE DEL DESTINO
Igandea: 11.30 (Matinala).



NOSTRADAMUS
Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Charles Russell** zuzendariaren filme honek efektu berezi onenen saria irabazi zuen Sitgeseko Zine Jaialdian. *Stanley Ipkis*ek (**Jim Carrey** aktorea) bihotz onegia omen dauka. Desesperaturik, zubi baten gainean bere bizitzari buruzko erreflesioa egiten ari den momentuan, gorpu bat aurkituko du ur gainean. Hura desintegratu egingo da eta gelditzen den maskara zaharrarekin geratuko da *Ipkiss*...

▼▼ *Michael McCann* (**Steve Martin**) erretiraturik bizi den gizon bakartia da. Bere auzokideek iragan misteriozua duela uste dute baina bere bizitza erabat aldatuko da ama galdu duen haur bat agertzen zaionean. Adoptatzea erabakitzen duen arren, hauraren aita azalduko da ustekabeen bere alaba aldarrikatuz.

▼▼ **Roger Christianen** filme honetan **Michel de Notre Dameren (Tcheky Karyo)** bizitza kontatzen zaigu. XVI. mendeko gizon honek etorkizuna ikusteko bertutea omen zeukan eta 3.000 urtera arte gertatuko ziren ekintza historikoak iragarri zituen, bere garaian erotzat hartu bazuten ere. **F. Murray Abraham, Rutger Hauer** eta **Assumpta Sernarekin**.

Deiak

▼ **Xakea.** Xake Txapelketa jokatuko da astelehenetik aurrera Etxagi tabernan. Izen-ematea bertan

▼ **Erakusketa.** Karnabaletako Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak Kultur Etxean bihar arte ikusgai. 12etatik ordu bietara.


▼ **Dani Laskurainen** grabaketa erakusketa Elorrioko Arriola Kultur Aretoan martxoaren 31ra arte.

▼ **Jubilatuak.** Santillana del Mar-era irteera martxoaren 14an. 1.300 pezeta (plaza mugatuak).

▼ **Odol ematea** asteazkenean, martxoak 8, arratsaldeko 7etatik aurrera Seminarioko baxuetan. Odol Emaleen Elkarteak herritarrei eta bereziki gazte jendeari kolaboratzeko deia luzatu nahi die.

Ogia

▼ **Igandea 5:** Konde.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 3:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 4:** Puy.
- ▼ **Igandea 5:** Puy.
- ▼ **Astelehena 6:** Guallar.
- ▼ **Astearte 7:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 8:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 9:** Camacho.

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Martxoak 8: Emakumea nagusi

Martxoaren 8an, asteazkena, Emakumearen Eguna dela eta, Jarduneko Emakume Taldeak eta Egizanek, Bergarako Udala eta Diputazioaren laguntzaz, "Emakumeen VI. Jardunaldiak" iragarri dituzte.


Partidu politikoetako ordezkariak mintzo

Hasteko, astelehenean, hilak 6, Nati Abril Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak "Emakumea komunikabideetan" izenburuko hitzaldia emango du arratsaldeko 8etan Kultur Etxean. Asteazkenean, berriz, "Aragunen gailurra" filmea eskeiniko da 8etan Novedades aretoan. Ostegunean mahai-inguru bat egongo da 19.30etan Kultur Etxean. Bertara alderdi politiko ezberdinetako ordezkariak izan dira gonbidatuak "Emakumeen egoera Bergaran" aztertzeko.

Bertso afaria barikuan

Ostiralean, hilak 10, Ainhoa Agirrezaldegi eta Saioa Arando bertsolari gazteek alaitutako bertso-afaria izango da gaueko 9etatik aurrera Artatse Elkartearen. Txartelak Ariznoan, Arranon, Kortaza-

Emakumeen VI. Jardunaldiak izango dira datorren astean zehar Bergaran



Aurten ere emakumei buruzko argazki lehiaketa antolatu da. Lanak hilaren 6tik 21era ikusgai izango dira.

ren edota Jardun Elkarrean jaso daitezke 1.000 pezetaren truke.

Igandean, berriz, hilak 12, Dzanga taldearen eskutik antzerki emanaldia izango da arratsaldeko 7.30etan Zabalotegiko

aretoan. Talde donostiarra dantza, antzerkia eta poesia biltzen ditu Yolanda Arrietaren "Bibokadak" izeneko muntaiari. Jasone Albaren zuzendaritzapean Amaia Cuende, Ainhoa Alman-

doz, Nagore Orbelzu eta Izaskun Lopetegi aktoresek lau emakumeren bizi-tzako hiru une garrantzitsu gogorarazten dizkigute. Dzanga taldearen ikuskizuna euskaraz izango da.

Era berean, Emakumei buruzko II. Argazki Lehiaketako lanak Pol-Polen egongo dira ikusgai martxoaren 6tik 21era bitartean arratsaldeko 7etatik 9etara. Iaz, Dani Santos bergararrak irabazi zuen.

"Hitzaldia, mahai ingurua, antzerkia, argazki lehiaketa eta bertso afaria antolatu dira besteak beste"

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Zuzenketa

Eroskiko Kontsumitzaileen Gizarte Komiteak martxoaren 8tik apirilaren 26ra bitartean, asteazkenetan, antolatuko duen sukaldaritza ikastaroaren ordutegia honako hau da: 15.00etatik 17.00etara eta 18.30etatik 20.30etara. Joan zen astean 27. orrian sukaldaritza ikastaroari buruzko iragarkian ordutegia gaizki agertzen zen. Barkamenak eskatu nahi dizkiogu Eroskiko Kontsumitzaileen Gizarte Komiteari huts honengatik.

BERRIGARA

Hobekuntzak Beheko Estazioan

Lehengo egunean Maltzaga-Uribako karpa famoso hori egon nintzen ikusten. Oso dotore dago eta dena ondo azalduta baina ez dut horri buruzko eritzirik eman nahi baizik eta sarrera parean zegoen lokatzaren gainean nere protesta azaldu nahi dut. Benetan pena bat da inguru hori hain egoera penagarrian egotea. Autobusa hartzera joaten naizen bakoitzean, eta askotan izaten da, ere putzuak nonahi daude eta dagokionari (Pesari edo Udalari, ez dakit) hori behar bezala jartzeko eskatu nahi nioke.


Benetan oso haserre irten ginen lagunok karpatik eta nere lagun batek komentatzen zuen bezala Beheko Estazioaren inguruan katiuskak erabiltzea ez legoke gaizki. Hain nekeza al da putzuak tapatu eta guztia asfaltatzea? Uste dut guztion onerako izango dela eta kanpotik gure herrira autobusez etortzen direnek ere ongi-etorria hobe izango lukete.

Gainera kontutan izan behar da gauza askotarako erabiltzen dela zona hori (jaietan barrakak, zirkoa etortzen den bakoitzean..., etab) eta beti arazo berdinekin gabiltza. Nahikoa da euri pixka bat egitea hura oso txarto

egoteko. Bestalde gauetan ere argi falta somatzen da eta kontutan izanda jende asko ibiltzen dela hortik paseatzen onena argi gehiago jartzea izango litzateke pasiuari ibiltzen garenok trafikoarekin inolako arazorik ez izateko. Uste dut ez dela gehiegi eskatzea. Eskerrik asko.

N. OREGI (15.394.765)

Tiira biraka



◆ **Euskadiko Kutxa arratsalde**

Astelehenetik aurrera, martxoak 6, Euskadiko Kutxa arratsalde ere zabalik izango da, astelehenetik ostiralera 4retatik 8etara.

◆ **Ttanttaka Arrasaten**

Ttanttaka antzerki taldeak "Todas culpables" lana antzeztuko du gaur gaueko 10.30etan Arrasateko Amaia antzokian. Mireia Gabilondo bergararra Ttanttakako aktoretako bat da.

JAIOTAKOAK

Danel Cusi Idigoras

Otsailak 21

Nekane Ezkurra Aiastui

Otsailak 22

HILDAKOAK

Jose Maria Suinaga Larrañaga

Otsailak 24, 67 urte

Javier Arenaza Ezenarro

Otsailak 24, 34 urte

Jose Maria Suinaga Larrañaga

Otsailak 24, 67 urte

Manuel Ocio Arriola

Otsailak 25, 79 urte

Bergarako Udaletxearen historia ezagutzeko erakusketa zabalik

Asteartean aurkeztu zen prentsaurrean martxoaren 3tik 31ra bitartean Udaletxeko Pleno Aretoan ikusgai egongo den "Udaletxea historian zehar" izeneko erakusketa. Arte Historia ikasketak burutu dituen Maria Garai eibartarrak prestaturiko erakusketa hau gaur goizean zabalitzekoa zen eta bertan historian zehar herriak izan dituen Udaletxe eta bertako erabileren azalpena jaso ahal izango dute herritarrek, astelehenetik ostiralera 11etatik ordubatera eta 5.30etatik 8.30etara eta, asteburuetan, 12etatik ordubietara eta 5.30etatik 8.30etara.

Erakusketak Udaletxearen zenbait erabilera historiko biltzen ditu, alondegia, kartzela, arraindegia, soldadutza edota artxi-boarena alegia. Arantzazu Oregi Udal Artxibategiko arduradunak esan zuenez, "erakusketak funtzio horien garapena isladatzen du".



Maria Garai, Victoriano Gallastegi, Koldo Pereira eta Arantzazu Oregi, astearteko aurkezpenaren.


Gaur eguneko Udaletxearen eraikuntza XVII. mendean hasitakoa bada ere, bere jatorria 1555 urtekoa da. Orditik izandako hainbat hobekuntza lan azaltzen dira erakusketan. Panelak, bideoa, planoak eta hainbat objektu historikoren bidez Udaletxearen historia azaltzen da.

Erakusketak 3 milioi t'erdi pezeta inguruko aurrekontua izan du eta eza-

gutzero emateko 500 kartel eta 5.000 triptiko kaleratu dira. Herriko ikastetxeei zuzendutako bisita gidatuak egingo dira eta martxo azken astean, berri, herritarrentzako bisitak.

Udaletxearen inaugurazioa apirilean egingo da eta ordurako Diputazioak Udaletxearen berritze lanei buruz argitaratuko duen liburua prest izango dela usate da.

Baserrietarako karta banaketa martxan



Auzoetako buzoietan jaso ahal izango dituzte gutunak baserritarrek.

Bergarako Udalak eta Mendi Nekazaritza Elkarteak herriko auzoetan jarritako buzoien funtzionamendua hobea da aurreko asteetatik. Dirudienez, Correosetako pertsonal arazoak zirela medio, hasieran arazoak zeuden langileak auzo guztietara heltzeko, hainbat puntutara heltzeko kotxea beharrezkoa izaten zelako. Orain, Madrilerara beharrezko eskakizuna egin ondoren, Bergaran aspalditik ez zegoen baserrietarako banatzailea jarri da martxan. Beraz, hemendik aurrera inongo arazorik gabe bidali ahal izango da korrespondentzia auzoetako 300 buzoi inguru horietara. Orainarte auzo bakoitzean toki konkretu batean (taberna edo elkarteren batean) lagatzen zen korrespondentzia eta ondoren bakoitzak jasotzen zuen.

◆ Argazki erakusketa

Miguel Altuna Institutuan

Miguel Altuna Institutuak, bere 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, apirilean argazki erakusketa bat egiteko asmoa du. Hortarako jendeak dituen taldeen argazkiak eta irteera, ikasketa-bidaia edo San Juan Boscoko argazkiak ikastetxera edota Gisasola burdinakidendarak ekartzeko eskatzen zaie interesatuei. Komenigarria izango litzateke argazkien atzekaldean emailearen izena eta telefonoa jartzea gero itzuli ahal izateko.

◆ Idolaz en Batzarra

Gaur ostirala arratsaldeko 7.30etan Antzuolako Idolaz euskara elkartearen batzarra egingo da Udaletzeko Areto Nagusian. Bazkideei eta interesatutako jende guztiari bertan parte hartzeko deia luzatzen zaie. Ondoren luntxa izango da.

◆ Euskal pilota ikastaroa

Deba Bailarako udaletako kirol eta euskara zerbitzuek "Euskal pilota joku zabarren ezagutza" ikastaroa antolatu dute martxoaren 11tik aurrera Arrasateko Musakola Kiroldegian. Izen-ematea (3.000 pezeta) Udaleko Kirol Zerbitzuan.

◆ Ski irteera

Pol-Polek Alpeetara, Val Thorensa, ski irteera antolatu du apirilaren 14tik 22ra bitartean. Bazkideentzat prezioa 46.000 pta.koa da eta 47.000 pta. gainontzekoentzat. Argibide gehiago 76 48 51 telefonoan.



Emakume langabetuen tasa gizonetzkoena baino haundiagoa da Bergaran.

Langabeziak behera egin du Bergaran azken urteetan

Gaur egun langabezia tasa %9,19koa da gure herrian

INEMen datuetan oinarrituta *Egilanen* egindako ikerketaren arabera, langabeziak behera egin zuen aurreko urtean Bergaran. 1994ko lehen hiruhilabetekoan gure herrian %11,57ko langabezia zegoen. Bigarren hila-betekoan %10,07ko langabezia eman zen eta hirugarrenean, berriz, %9,19koa. Langabetu kopuruei dagokienez, lehen hiruhilabetekoan 778 langabetu zeuden, 677 bigarrenean eta 618 hirugarrenean. Aipatutako ikerketaren arabera, hirugarren hila-betekoan eman zen portzentaia (%9,19a) Deba Garaiko baxuenetarikoa da. Deba Garaian %9,66ko langabezia eman zen garai hartan, Gipuzkoan %14,33a eta Euskal Autonomi Elkartearen, berriz, poblazio aktiboaren %15,64a aurkitzen zen lan barik.

Bergaran 25 urtetik 34 urtera bi-

tartekoan artean dago lanik gabeko portzentaiarik haundiena (%40,61), 25 urtera artekoan artean %30,42ak ez zuen lanik eta ondoren 35-44 urte artekoak aurkitzen dira (%18,28ko langabezia). Azkenik, 44 urtetik gorakoan artean %10,68a dago langabeziaren. Tendentzia hauek Deba Garaia, Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Elkartearen ere errepikatzen dira.

Langabetu gehienek ikasketa maila baxua daukate estudioaren arabera. Horrela %30,10ak Eskolatze Agiria dauka, OHO ikasketak % 25,24ak egin ditu, %13,75ak FP2 ikasi du, UBI %9,6ak, FP1 %7,28ak eta, azkenik, goreneko titulatuak langabetuen %6,7a osatzen dute. *Egilanen* ikerketak aipatzen duenez, emakumeek gizonetzkoek baino gehiago sufritzen dute langabezia.



umelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

Roman Uriarte bergarra Eibarren deskarrilatutako trenean zihoan

"Susto ederra hartu banuen ere, ez nuen zauririk jasan"

Roman Uriarte 74 urteko bergarrak garrantzirik gabeko zauriak jaso zituen astelehenean Eibarren gertatutako tren istripuan.

Jakingo duzuen bezala, Azitain auzoan izandako istripu horretan 5 pertsona hil eta beste 30 bat zaurituta gertatu ziren Bilbao-Donostia ibilbide betetzen zuen Eusko Trenbideak-eko trena trenbidetik irten ondoren.

Romanek berak azaldu digunez, "Zumaiara joan behar nuen ban daukadan apartamentuan arazo

batzuk zirelako berogailuarekin. Sarritan erabiltzen dut trena, astero pare bat aldiz. Ordubatean irten zen trena; nik obitura daukat makina ondoko bagoian joateko eta oso jende gutxi geunden atze-


"Errezatzeko astirik ere ez nuen izan. Gerran ere ibilitakoak gara baina sustoa izugarria izan zen"

neko bagoi borretan. Eibarretik irten ginenerako nerekin zihoan emakume batek zera esan zuen makinistagatik: "¡Está loco! Menu-da velocidad..." eta justu orduantxe istripua izan genuen. Errezatzeko astirik ere ez nuen izan. Gerran ere ibilitakoak gara baina sustoa izugarria izan zen".

Berehala tentsio haundiko momentuak bizi izan ziren Azitainen. "Horrela da, bai. Nere ondoko emakume batek kolpea hartu zuen buruan baina berehala etorri zen bere onera. Gure bagoia ez zen deskarrilatua baina beste biak bai eta borko jendea izan zen kaltetuenen. Oso gogorra egin zitzaidan bildakoak eta zaurituak ikustea. Esan behar dut segituan izan genuela atentzioa eta guztiei eskerrak eman nabi dizkiet, oso ondo portatu ziren eta".

Romanek buruan eta belaunean dauzka kolpeak eta horren ondorioz beltzune batzuk gorputzean. "Zorionez zortea eduki nuen eta anti-inflamatorio batzuk agindu zizkidan mediku batek. Urtetan aurrera goaz eta tontokeriekin ez etortzeko erantzun nion".

Trenari beldurra hartu ote dion galdetu diogunean zera erantzun digu Romanek: "Beldurra ez baina hurrengo egunean erreparoa neukan berriz trena hartzeko eta autobusez joan nintzen Zumaiara. Baina ez dut uste berriz ere trenean ibiltzeko arazorik izango dudarik...".



Trenbidetik irten ez zen bagoi bakarrea zihoan Roman.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA
ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2-19 urte)



SAN MARTIN DE AGIRRE

ESKOLAURREA eta OHO (EGB). 2-14 urte.



ANGIOZARKO ESKOLA

ESKOLAURREA eta OHO (EGB). 2-14 urte.



IPINTZA INSTITUTUA

14-18 urte.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

14-19 urte.

**MATRIKULA
DOAN!!**

• **D, B eta A EREDUAK:**

D DENA EUSKARAZ / **B** ELEBIDUNA / **A** GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK

• **ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUTA:**

IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK

• **BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUA ETA HORNITUA:**

LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

AURREMATRIKULATZEKO EPEA:

SAN MARTIN IKASTETXEA: MARTXOAREN 1etik 15era (2 URTEKO GELA, AURRESKOLA, OHO)

IPINTZA ETA MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAK: MAIATZAREN 3tik 14ra.

MARTXOAREN 11n SAN MARTIN IKASTETXEAK ESKOLAKO ATEAK IREKIKO DIZKIE GURASOEI ETA KANPOKO JENDEARI IKASTETXEA BARRUTIK EZAGUTU DEZATEN.

2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA

Eugenio Ibarzabal:

"Miguel Altuna Institutua punta-puntako eta kalitateko ikastetxea da"

Eugenio Ibarzabal kazetariak Kalitate pertsonala izenburuko hitzaldia eman zuen aurreko ostegunean Miguel Altuna Institutuan, ikastetxearen 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne. Eusko Jaurlaritzako bozeramale ohia (1984-1987) eritzi publikoa aztergai duen Iceberg Prospectiva gabineteko zuzendaria da gaur egun.



Eugenio Ibarzabal kazetariak Elkarrik antolatuko duen Pake Konferentzian moderadore lanak egingo ditu.

- Zein harreman daukazu Miguel Altuna ikastetxearekin?

- Ba oso ona zergatik Miguel Altuna ikastetxea sare oso berezi batean sartuta dago. Kalitate totaleko mugimendua sartu nahi dugu zenbait ikastetxetan eta Miguel Altuna ikastetxea hasiera hasieratik sartu da, gogo haundiarekin gainera. Esan daiteke punta-puntan dagoen beste ikastetxe bat dela. Hasiera hasieratik gauzak ondo joan dira eta oso harreman onak izan ditugu. Orain dela urtebete hasi ginen elkarrekin hainbat gauza egiten eta oso gustora gaude.

- Zer azaldu nahi duzu kalitate totalarekin?

- Pixkat esplikatu nahi dudana zera da: kalitate totala sortzen eta eratzen ari da gero eta gehiago en-

presetan eta hezkuntzan ere etorkizunean sartuko da. Baina hemendik gutxira kalitate pertsonalak garrantzi haundia izango du. Zenbait enpresatan kalitatea nola neurtzen den badakigu. Momentua da kalitate pertsonala nola egin behar den, nola bultzatu behar den eta nola neurtu behar den jakiteko.

- Nola ikusten duzu Lanbide Hezkuntzaren etorkizuna?

- Gero eta inportanteagoa. Gainera abantaila bat dauka: errealitatearekin oso lotuta dago, honelako ikastetxeak beste ikasgaietara irekiagoak daude, beste mailetara gauzak ikasteko... gero eta hobeto ikusten ditut. Nik uste etorkizuna hortan dagoela (ez bakarrik hontan beste gauzatan ere bai) eta alde

horretatik izugarri optimista naiz.

Gainera beste gauza bat gertatu zait; badakizu zer gertatzen den zenbait irakaslerekin, problemak dituztela, beren gelan sartuta daudela eta nahiko isilak, nahiko bakartiak etabar. Eta hemengo irakasleen aldetik behintzat gauzak aldatzeko gogo haundia somatu dut, inpresio ikaragarri ona hartu dut.

- Gaiz aldatuz. Hainbat pake talderekin izan zara moderatzaile lanetan. Nola ikusten duzu Elkarrik antolatu nahi duen Pake Konferentzia?

- Nik ondo eta gainera moderadore bezala parte hartuko dut. Badakit gauzak zailak direla; oztupoak badakizkigu baina nik ikusten badut argiren bat,

txikia baldin bada ere, ni handik sartuko naiz. Mentalidade positiboarekin sartu beharra daukagu eta bost axola zaigu beste batzuek zer esaten duten. Gauzak ez daude batere ondo eta hau dena konpondu behar da.

Beste gauza bat gertatzen da; kanpoan gertatu diren hainbat gauza esan digute oso zailak zirela, gurea baino zailagoak eta beraiek egin baldin badute guk zergatik ez?

- Konparagarriak al dira beste herrialdeetako kasuak?

- Ez daude bi kasu berdinak. Baina azken finean guk ikusi behar dugu gure bidea. Bide hori beti dago eta zenbait atal pasa behar dira. Hitz egin baino lehen ezagutu eta ezagutu baino lehen entzun bata besteari. Hori da inportantea eta nik uste oraindik lehen etapan gaudela.

- PPK ez omen du parte hartuko...

- Sentimenduak onartu egin behar dira eta zentzu honetan ulertu egin behar da. Orain sartzen ez badira beste hurrengo baten sartuko dira. Gauzak horrela egin behar dira; ez kritikatu baizik eta bueno hor badago jarraituko diogu eta punto.

(Elkarrizketa egin zen egunera arte PPK bakarrik eman zion ezetza Pake Konferentzian parte hartzeari. Ondoren, PSE-EEK ere, ez duela parte hartuko jakitera eman du).

Jende gutxi baina giro alaia aurtengo karnabaletan



Rocío Jurado eta Ortega Canoren ezkontzaren parodia egin zuen taldeak eramán zuen mozorro lehiaketako taldekako saria.



Ilargitik etorri eta neska-mutiko kuadrilarekin gustora asko pasatu zuten argazkikoek.




Mendi kaskoetan elurra egin du egun hauetan eta elur panpinak karnabalak zirela eta, herrira jeitsi dira. Beheko argazkian ikusi daitekeenez, berriz, simpsonarrak ere Bergaran izan ziren.

MOZORRO JANTZIEN LEHIAKETA

Bergarako Dendarien Elkarteak antolatutako mozorro lehiaketako irabazleak honako hauek izan ziren: 6 urtera artekoen taldean, Usue eta Haizea. 6 urtetik 10 urtera artekoen taldean, berriz, Julen Iñarra. 10 urtetik 14 urtera artekoen taldean, Nerea Ruiz de Eguino eta taldekako artean, Rocioren ezkontza parodiatu zuten *Piparrada-koak*. Esan behar da parte hartze haundia izan zela, baina antolaketa ez zela onegia izan. Antolatzaileek hurrengo batean hobe egingo dutela adierazi dute. Ea ba...



Aratuzteetan, edozein motatako harremanak ugaltzen dira. Belle-Epoque garaiko emakume dotoreak eta kaskoa galdu duen bikiñoak, esate baterako, primeran pasa zuten elkarrekin.





Nili ele Belgalako kalnabalak gustatzen zaizkit.



Rocio Jurado bi bider ezkondu dela eta, bi bodak izan genituen Bergaran.

IKASTOLAKO UMEAK ETXEAN

Aurten karnabal martitzen arratsaldean ez da Aranzadi Ikastolako umeen kalejirarik izan. Asko hit egin da gai horri buruz. Aranzadiko arduradunak et Udalekoak haserre direla eta horregatik ez dela kalejirarik egin eta beste hainbat berba. Inazio Arreg Aranzadi Ikastolako zuzendariak zera adierazi digu "ikasturteko lan ordutegia egin genuenean, astearen goiza jai hartu beharrean astearte arratsalde hartzea erabaki genuen bere garaian. Horregatik ez da kalejirarik egin, jai izan dugulako". Ea hurrengoan irtetzen diren, askok eskertuko dute...



Erdi Aroko zaldunak eta bikingoak prest daude gerrarako.



Ijito, Zingaro eta bestelakoak kaleak alaitzen aritu ziren.

Elkarrizketa.....

Arratsalde batez Ion Aranbururekin elkarrizketa bat eduki genuen. 14 urteko bergarar gazte hau dantzari trebea da, zenbait aldiz Euskadiko Txapelkun izan delarik dantza aske modalitatean.

ION

Aranburu

- Noiz hasi zinen dantzan ?

- 5 urte nituenean.

- Gurasoek bultzatuta ala zuk nahi zenuelako?

- Gurasoek bultzatu nindutelako, bereziki amak, baina orain gustora sentitzen naiz.

- Norekin dantzatzen duzu?

- Maite Lazkanorekin.

- Noiztik zaude pareja honekin?

- Hasi nintzenetik eta oso gustora sentitzen naiz berarekin.

- Noiz irabazi zenuen Euskadiko txapelketa lehen aldiz?

- 8 urte nituenean, 1988an. Poz haundia hartu nuen eta dantzan jarraitzeko indarra eman zidan.

- Zenbat Euskadiko txapelketa irabazi dituzu?

- Lau.

- Txapelketa izateagatik neska asko hurbiltzen al zaizkizu?

- Ez, bat ere ez, honek neskatan ez du eraginik.

- Ba al duzu neskalgunik?

- Ez, tamalez, baina

gustatuko litzaidake.

- Herri askotan dantzatu al duzu?

- Bai, baina beti Euskadin. Euskaditik kanpora dantzatzera ez naiz inoiz joan.

- Zer esango zenioke

"Dantzan hasiberri bati ez lotsatzeko eta gogor jarduteko esango nioke"

hasiberri bati?

- Ez lotsatzeko eta jendearen isekei ez kasu egiteko, eta gogor eta kementez jarduteko.

Honaino, Ion Aranbururekin izandako elkarrizketa




Ion Aranburu orain dela urte batzuk, Amaia Lazkanorekin eta beste bikote batekin Bergaran.

"Euskadiko txapelketa izateak ez du neskatan eraginik"

.....9 galdera motz

Orain dela 17 urte bere aitarekin hasi zen institutuko tabernan. Egunero egiten die aurre guztien eskaerei.



J. Mari Garaitz Koste

1 Gogorra al da tabernarien lana?

Bai, gazteek lan asko ematen dute.

2 Zer nahiago, ikasleak ala irakasleak?

Irakasleak, aurten ikasleak txarrak dira.

3 Tabernan merkealdiak noiz?

Egunero izaten dituzue: bi eraman, bat pagatu.

4 Kamarera sexy-rik kontratatzeko asmorik?

Ez, bakarrik ondo moldatzen naiz.

5 Zein da zure hobby-a?

Pelota.

6 Pelotaririk onena?

Zezeaga.

7 Ihauterietan zertaz mozorrotu zinen?

Ez nintzen mozorrotu.

8 Tabernan gertatu zaizun bitxikeria bat.

Asko maitemindu dira bertan eta gero ezkondu.

9 Etorkizunari begira zer?

Neska bat aurkitzea gustatuko litzaidake.

Bertsoak

Ihauteriak dira
hau egun alaia
hemen agertu dira
Guerrero pila
harrituta gera
Guerrerok bait darama
"kriston zepelina"
Irureta hor dator
hau dek komeria
ez da mutil fina
gure erregina
neskek ikusiz gero
galduko gina (BIS)


Datorren urterako
ikasiak gera
Gerroen disfraz
ez duk ez txarra
jartia bakarrik duk
beste dena egin
Guerreroren itxura
ez da ez bromia
hau dek hau txollua
neskatan egitia
ta bide batian
ondo pasatzia
zer gertatuko dek
datorren urtian? (BIS)

**IÑIGO LARRAÑAGA
AITOR ARRUTI**

Jolasean.....



Zazpi huts daude...



Bila eta topa itzazu!!

IZAR RODRIGUEZ



DEBASAREN aurreproiektua 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara ikusi daiteke.

Maltzaga-Urbina: Aurreproiektua Bergaran

Igandera bitartean ikusgai izango da

700 metro karratuko karpan DEBASAK aurkezten duen aurreproiektuaren berri ematen da. DEBASA, Arabako Diputazioak (%25), Gipuzkoakoak (%25) eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiak (%50) osatzen dute. Elkarte publikoaren helburu nagusia, autopista sustatu eta bultzatzeko behar adina jardura gauzatzea da. Hona hemen aurreproiektuari buruzko

Debasak aurkezten duen aurreproiektuaren erakusketa ibiltaria Beheko Estazioan egongo da domeka arte. Aurretik Arrasaten eta Eibarren egon da eta 40.000 lagunek ikusi dute. DEBASAREN aurreproiektuaren aurka azaldu dira Haran Bizia, HB eta Eguzki. Azken biek Gatzaga-Landako biztanleen proiektua proposatzen dute.

zehetasunak

Aurreproiektua

DEBASAREN aurrepro-

iektuaren arabera, Maltzaga-Urbina 44 km. izango ditu eta 96. urtean hasiko dira eraikitzen. Bertan ibiliko den auto

kopurua 17.000 eta 20.000 artekoa izango da eguneko. DEBASAK dioenez, "Maltzaga-Urbina Euskal Herriaren eta Espainiaren eta Europako gainerako herriekiko barremanak hobetuko ditu izan ere, Deba bailaren behar estrategikoa baita, Euskal Herriko komunikazio sarearen gako eta Europa zeharkatuko duen ardatz berri baten funtsezko elementua".

Maltzaga-Urbina atza definitzeko, besteak beste, irizpide hauek izan ditu kontuan DEBASAK: Maltzagan A-8 autopistarekin (Bilbao-Behobia) bat egitea; Bergara eta Arrasate arteko errepidea Beasain-Durango pasabideko zati izatea; eta ingurugiroa zein ondare kulturala zaintzea. Ildo honetatik, "ingurugiroa eta ondarea abalik eta gebien errespetatzeko, bada, 3. belaunaldiko autopista egiteko, gebienetan ikuspuntu ekonomikotik kostu haundiagoa duten irtenbideetara jo da, hala nola, bidezubi eta tunelak egitera. Honela, aurreproiektuaren lehen kostua 53.000 milioi zen, eta orain aurkezten denarena, berriz, 85.000 eta 100.000 milioi pezeta artekoa".

Hala ere, DEBASAK adierazi duenez, "Maltzaga-Urbina autopista eraikitzeak ez du esan nahi egungo errepideak ber-

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

tan behera lagako direnik, finantzaketak errepide hauek hobetzeko baliabideak ere aurrikusten ditu".

DEBASaren esanetan, autopistak finantziazio mistoa izango du: ekimen pribatuek erdia ordainduko dute; beste erdia, erakunde publikoek (%50 honen %42,5a Europako fondoetatik lortu nahi da). DEBASak adierazi duenez, dirutza honi aurre egiteko, erabiltzaileak 400 pezetako peaje "biguna" ordaindu beharko du Maltzaga eta Urbina arteko 44 km.ak egiteko. Bergara eta Arrasate arteko peajea dohain izango da.

Autopistarekin batera, DEBASak lehengo trenbidea aprobeztatuz, 55 km.ko bidegorria egiteko asmoa du.

Bergaran nondik pasatuko da?

DEBASaren aurreproiektuak 6 zati ditu eta horietatik 2 pasatuko dira Bergararik:

- Maltzaga-Amillagaren (Iberduero gaina) zatiaren bukaerak eragiten dio Bergarari, Osintxu inguruan. Pare honetan tunel bat eraikiko da eta Amillaga erdilotunea izango da.

- Amillaga-Bergara Hegoa (Epele baserria): Amillagako lotunetik Zaldumendiko lotuneraino joango da, hau da, Durango Beasain pasabidea-

rekin bat egiten duen tokiraino. 3,696 km.ko zati honetan bi biadukto (560 m.) eta San Martzial azpian joango den ia km. batenko tunela egingo dira.

HB eta Eguzki Gatzaga-Landako proiektuaren alde

DEBASaren aurreproiektua ez da denen gustokoa. Eguzki eta HB, esaterako, proiektu ofizialaren aurka azaldu dira eta alternatibatzat Gatzaga-Landako biztanleek proposatutakoa aurkezten dute: oraingo errepidearen hobekuntza sakona.

Gatzaga-Landako proiektuak, Bergarari dagoki-

Autopistak finantziazio mistoa izango luke: ekimen pribatuek erdia ordainduko lukete eta beste erdia erakunde publikoek

onez, besteak beste hauek proposatzen du: Osintxuko bariantean beste karril bat egitea;

hirigunetan sartzeko lotuneak eta lantegietarako erdilotuneak egitea; eta Bergararik San Prudentziora artean: beste bi karril, Zumarragarako bariantea eta Oñatiko bidegurutzeta beste leku baten egitea.

Aurrekontuari dagokionez, proiektu honek 12.000 miloiko kostua izango du.

Eguzkik proiektu ofizialaren erakusketaren ondoan zenbait panel jartzeko asmoa du baina udalari eskatutako baime-naren erantzunaren zain dago.


Herri Batasunak, berri- z, DEBASaren karparen



DEBASak prestatu duen karpa, 40.000 lagunetik gora ikusi dute Arrasate, Eibar eta Bergaran.

**DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
 Arrasate / Bergara / Elgoibar
 T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**ETXEBERRIA**
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
 Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



Maltzaga eta Urbina lotuko dituen errepide berria egingo da aurki.

ondoan Gatzaga-Landakoaren erakusketa ere jartzeko eskatu zuen, "bi proiektu daude: DEBASAREna eta gatzagakoa eta bakarrik ikuspegi bat erakusten da". Talde politikoaren arabera, "Maltzaga-Urbina artean dabilen trafikoak ez du autopista eskatzen; gainera autopistak sarrera/irteera gutxi du eta ez luke bailarako barne trafikoaren arazoa konponduko. HBk Gatzagako proiektua bultzatzeko arrazoi hauek ematen ditu: bailarako trafiko arazoak konpontzen ditu; Gatzagakoaren aurrekontua (12.000 miloi) DEBASAREna (100.000 miloi) baino txikigoa da; eta ingurugiroa, ondare artistikoa, e.a. trazaketa

ofizialak baino gehiago errespetatzen ditu. Maketan errepidea adierazten duen marra bat egitea erraza da: karpan dena berdea eta polita ikusten da, baina kontuan hartu behar da marra horrek zer esan nahi duen".

HBren ustez autopistak eragin handia izango du ingurugiroan (landare-tza, fauna, paisaia eta lurretan) eta kalte sozialak ere eragingo ditu: "Errota Erdikoa baserria biadukto baten azpian geratuko da; Askatu gaineko baserria, Lamariano Torrea, Supide eta Aldeta azpikoa autopistatik 70-190 metrora geratuko dira; Larriñoko San Martzial ermita 50 metrora eta balio historiko/kultural handiko etxeak 100

m.ra geratuko lirateke. Autopistaren zarata ere nabarmena izango da".

DEBASAK Gatzaga-Landako proiektua aztertu zuen bere garaian baina baztertu egin omen zuen zenbait akats ikusten zituelako: "Gatzaga-Landako proiektua tekni-

koki eskasa da, ingurugiroari kalte handiak eragiten dizkio, Deba bailarako herriek etorkizunetan izango dituzten komunikazio arazoak ez ditu konpontzen eta Europa zebarkatu duen ardatza ez du kontuan hartzen".

Debasaren aurreproiektua

■ **DEBASAK Maltzaga-Urbina bitartean 44 km.ko autopista egitea du helburu. Peajea 400 pezetakoa izango da. Bergara eta Arrasate artean ez da ordainduko.**

■ **Bergaratik trazaketako 2 zati pasatuko dira:**

Maltzaga-Amillaga (Iberduero gaina): Osintxu parean ia km. bateko tunela egingo da.

Amillaga-Bergara Hegoa (Epele base-rirra arte): 3.696 m.ko luzeera, 960 m.ko tunel bat eta 560 m.ko bi biadukto izango ditu.

■ **Aurrekontua: 80.000-100.000 miloi.**

Gatzaga-Landakoa

■ **Helburua: gaur egungoa aprobetxatuz, errepidea hobetu eta berritzea.**

■ **Osinxuko bariantean beste karril bat egingo da, eta Arrasate-Bergara artean beste bi.**

■ **Aurrekontua: 12.000 miloi.**



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Liburuak eta diskoak

Haran Bizia: Autopistarik ez!

Haran Bizia, bailararen aldeko plataforma, era guztietako jendeak osatzen du. Plataformak dioenez, "gure bailarak hobekuntza sakonak behar ditu, baina irtenbidea ez da autopista bat eraikitzea, oraingo errepidea hobetzea baizik".

Haran Biziak autopistaren aurkako arrazoen artean bi nabarmentzen ditu: batetik, autopistak ez du, politikoek dioten bezala, krisi ekonomikoa

konponduko; eta bestetik, finantziarioa: "autopistaren obrak finantzatzeko, peajea jarriko dute eta Bilbao-Behobiaren peajea luzatu egingo da, 2020. urte arte".

Aurreproiektuari buruzko iradokizunak

DEBASaren Maltzaga-Urbina aurreproiektu ofizialari buruzko iradokizunak egin nahi izanez gero, karpan bertan edo Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundietan egin daiteke.



Proiektuari alegazioak egin ahal izango dira Diputazioan.

Iritziak plazara

► HARAN BIZIA:

"Bailarak hobekuntza sakonak behar ditu baina bailararen etorkizunaren aldeko apostua egitea M-U autopista eraikitzearen aurka egitea da"

► EGUZKI:

"IPGetan galtzailerik handiena administrazioaren proposamena izan zen: %80 gaur egungo errepidea hobetzearen alde azaldu ziren; autopista %28k bultzatu zuten eta autobidea %29k"

► HERRI BATASUNA:

"Autopistak, hain estua den bailarari lur okupazio handia ekarriko dio, baita Abiadura Handiko Trenak ere, eta bi proiektuak ez dira elkarrekin aztertu"

"M-U ez da bailararen zerbitzurako izango, Europako ardatzaren barruan pasoko errepide izango da eta 10 minutu aurreratzeko bailarak ez du eraso hori zertan jasanik"

► DEBASA:

"Onartezina da, bere orografia dela eta, Euskal Herriak autopista onak izateari uko egitea"

"M-U autopistak Deba bailarara eta Bergarara enpresa berriak ekarriko ditu eta ondorioz, lanpostu berriak sortuko dira"

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

Ekonomia errekuiperatzen ari den somatzen al duzu?



Maritere Rubio
56 urte, etxeoandrea

Ez, nik ez dut horrelakorik igarri. Nire etxeo ekonomiak, behintzat, ez du hobera egin, alaba bat langabezian dut eta.



Pedro Epelde
49 urte, langilea

Ez dut errekuiperaziorik igartzen. Batzuk hobe dabilta, baina orokorrean, ekonomia estankatuta dagoela uste dut. Ez txarrera, baina ezta hobera ere.



Encarna Terrero
35 urte, etxeoandrea

Ez, momentuz ez. Langabeziak behera egin duela esaten dute, baina nire ustez gora egin du. Prezioek ere gora egin dute eta soldatek ez dute igotzen...




J. Carlos Barrutia-Bengoa
38 urte, langilea

Gaur egun ekonomiak hobera egiten duen ala ez igartzea oso zaila da. Egun batean lana egon daiteke eta hurrengoan, berriz, ez.



Paki Delgado
29 urte, etxeoandrea

Ekonomiak ez du hobera egin, geldirik dagoela uste dut. Senarrak lana du baina hiru koinatuak langabezian ditut. Beraz, errekuiperaziorik ez da inondik ere.



Joakin Zabalza
61 urte, jubilatua

Nire alaba lana topatu ezinda dabil eta ni derrigorrez jubilatuzera behartu ninduten, fabrika itxi egin zen eta. Beraz, ez dut somatzen ekonomiak hobera egin duenik.

Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA

TOSHARE
☎ 76 29 70

SURPE
Taberna
Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA



Maltzaga-Urbina


Maltzaga-Urbina autopistaren aurreproiektua erakusteko Debasak prestatutako karpa ikusi eta gero, NIP edo IGPen (Interbentzio Gune Partehartzaileak) prozesuan zehar jasotako sentimendu berbera izan nuen: geldiezinezko errota batean garamatzate; informazio asko emanez zenbait puntutan, gehiegi behar bada, eta beste puntutan ostera, iluntasuna nagusi. Inork ikusi al du erakusketan autopistaren aurrekonturik? Lehen bazegoela esan zidaten, baina aldaketa batzuk zirela eta panel hori kendu dute.

IGPek ere ez zuten informazio osoa izan, ez baitzuten esku-ratu aurreproiektuaren trazatu zehatzarik bere iritzia ondo eman ahal izateko. Prozesu hura hasi baino lehen nahiko ezkorra nintzen instituzioek talde hauen irizpena "vinculante" edo betebeharrekoa ez izatea erabaki zutelako.

Hala eta guztiz ere, hiritarren irizpena eman zen eta oneritzi sozial gehien jaso zuen irtenbide teknikoa (partaideen %42) "egungo trazatua hobetu eta edukien handiko bide bizkor bat eraikitzearen aldekoa" izan zen; boturik gehien lortu zuen bigarren aukera (%39) "egungo errepidea konpontzea soilik" zelarik. Bi aukeren barnean dagoen "egungo errepidea hobetzeko" egitasmoa (lehenengo kasuan, bide bizkorra eraikitzeaz gain) aurrera eramateko eredu gisa Gatzaga eta Landako bizilagunek aurkeztutako proiektu alternatiboari eman zioten baliospen positiboa iGPek (%59 alde eta %13 soilik aurka).

Ez zaie arrazoia falta Gatzagako lagunei, autopista egin eta gero "peaje" edo bidesaririk izango balu, kotxe askok jarraituko luke bide estu eta bihurgunetsu hori zeharkatzen, abiadura handiz gainera, Arlabaneko garraioei ihes egin nahian. Egungo trazatua hobetu behar dela inork ez du zalantzan jartzen, beste kontu bat da horrez gain Debasak zer egingo duen eta IGPen iritziak kontutan hartuko diren ala ez.

German LARRAÑAGA



Hauteskundeak

Berriz ere hauteskunde atarian aurkitzen gara. Betiko leloa izan arren, zenbait zehaztasun azpimarratu nahiko nuke: Hego Afrikako beltzak ikusi ditugu gau eta egun amaierarik gabeko ilara luzeetan lerro turik lehenengo aldiz botoa emateko beraien txanda noiz helduko den zai.

Emakume euskaldunok ere estatuko gainontzeko emakumeen gisara II. Errepublika garaitik (60 urte pasatxo) aurrera botoa emateko aukera izan dugu.

Egia esan, eskubide honek, eta denok ezagutzen dituzue arrazoiak (Frankismoa...) ez du praktikan, orain dela gutxira arte, eragin handirik izan.

Baina oraindik berria eta aurrerakoiagoa suertatzen dena zera da: emakumeok hautagaien zerrenda buruan azaltzea.

Eta aipatutako berrikuntza Bergarara ere iristi zaigu. Konkreteki, hurrengo Udal Hauteskundeeetan bi zerrenda buru emakumezkoak izango baitira.

Ea sortea duten. Ziur naiz Udalaren eta guztion onerako izango dela.

Amaia ZABALETA

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

AGIRREBEÑA

**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

TVEkoak Bergaran

Aurreko ostiralean TVEko kazetari eta kamarak izan ziren Lamariano-Etxeberri baserrian. Astebukaera honetan Madrilan izango diren "Emakumea ekonomiaren arlo ezberdinetan" jardunaldiak direla eta, TVE-lean hainbat emakumeri buruzko erreportaia eskeiniko da.

Bertan baserrian lan egiten dutenen ikuspegia ere azalduko da eta, hain zuzen ere, horri buruz berba egin zuten kamara aurrean

Lamarianoko **Zelestina Larrañagak** eta **Maite Aristegi** bere alabak eta Lapatza baserriko **Marije Gorritxok**. Aipatutako erreportaia gaur gaueko edota bihar arratsaldeko Telediarionan emango da ziurrenik. Adi beraz...



TVEko erreporteroak Lamariano-Etxeberrin izan ziren joan zen ostiralean irudiak grabatzen.



Ez da lehenengo aldia Larrañaga optikako lorontziak apurtzen dituztena.

Lorontziak apurtuta

Larrañaga Optikak salatu egin du lbargaraiako dendaren sarreran daukaten lorontzia ezezagun batzuek behin eta berriz apurtu egiten dutela. Jon Larrañagak adierazi zigenez dagoeneko lau alditan gutxienez apurtu diote lorontzia, azkena aurreko astebukaeran. Espero dezagun honelako ekintzarik berriro ez errepikatzea...



**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Elurra



Kalera ez baina
 ez da bai elurra
 mendietara.
 Argazkian ikus
 keenez **Gorlako**
 mendiak zuri-zuri
 agertzen ziren
 artean. Hori dela
 herriar dexente
 bidu zen bertara
 onian bueltatxo
 bat eman eta
 uretan jolasteko.
 Datozen
 unetarako berriz

ere temperaturen jeitsiera iragarrita dago eta elurra egin dezake 300 metrotik gorako tokietan. Elurra hurbiltzen ari omen da... Prest izan beraz berokiak eta guanteak, negua benetakoa izateko elurra falta da eta.




Ibilgailuen Azterketa Teknikorako tailer berria zabalik da.

ITV berria

Urtebetez behin-behineko tailer batean izan ondoren, astelehenean zabalduko da Ibilgailuen Azterketa Teknikorako (IAT-ITV) tailerra Santalaitzen. Beraz, astelehenean aurrera era guztietako ibilgailuek beharrezko azterketa egin ahal izango dute bertan. Lehengo tailerrean 3.500 Kg. tik beherako ibilgailuek bakarrik zeukaten azterketa egiteko aukera. **Luybas Bergara** tailerra goizez 9etatik ordu batera eta 3retatik 7etara izango da zabalik.

Zertan dihardute ba?



Valentin Kalboetxeaga

Pizinetako mantenimendu arduradun ohia jubilatuta egin berri da. Hori dela eta, atzo gauze bere omenezko afaria egitekoa zen Antxon tabernan. Valentinek 65 urte ditu eta 24 urte eman ditu pizinetan lanean. "1971n zabaldu zirenetik pizinetan lan egin dut. Akordatzen naiz San Inazio egunez zabaldu zirela. Eta handik 3 urtera kanpokoak egin ziren" esan digu Valentinek. Jubilatuta ondoren, Txindokira ailegatzeko erretua dauka; "Rafael Arakistain marmoleroa daukat entrenadore. Ikusi behar...". Zorionak Valentini eta eutsi osasunari.

MUJIK

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
 ☎ 76 20 34

Reyes Azkoitia


Reyes Azkoitia (43 urte, 3 seme-alaba) Bergara K.E.ko pelota saileko entrenatzaileetako bat da. Hasieran harridura piztu bazuen ere emakume bat pelotan aritzeak, Reyesek argi utzi du beste inor beste dakiela pelotaz.

- Bergararra ala azkoitiarra?
- Azkoitiarra, Bergaran bizi arren. Eta Elosu ere izugarri maite dut.
- Bergaran nahiko pelotari daude?
- Gehiago komeni. Hortarako kondiziñoak eta laguntzak behar...
- Herriko frontoi bat?
- Munizipala kenduta, Elosukoa.
- Frontoiak txuriz ala berdez?
- Berdin zait baina arraroa egingo litzaidake pelota txuria...
- Pelotari bat?
- Retegi II.a.
- Zezeaga manomanistan?
- Kondiziñuak badauzka baina gaizki pasatzen badu...
- Pelota kazetari bat?
- Jon Truebari irakurtzen diot baina ez dut berarekin komulgatzen.
- Zergatik ez dago emakumeen txapelketarik?



"Bergaran pelotari gehiago egon beharko lirateke eta hortarako kondiziñoak eta laguntzak falta dira. Pelotari bat? Retegi. Futbola ere gustatzen zait, gizona kenduta etxean denak futbolistak dauzkat eta"

- Ez dagoelako txapelketa egiteko beste pelotaririk.
- **Zenbat zarete?**
- Eskuz eta txuriz jokatu dutenak 5 bat ezagutu ditut.
- **Noiz arte jokatzen jarraitzeko asmoa?**
- Lanari lehenago utziko diot...
- **Bertsolari bat?**
- Peñagarikano.
- **Eta abeslaririk gustokoena?**
- Benito Lertxundi.
- **Irratia ala telebista?**
- Biak.
- **Telebista programa bat?**
- "Frontón", "Baietz barrez lehertu" eta "Goenkale".
- **Irratiko ahots bat?**
- Jaime Otamendirena, "Aio, aio" esaten duelako.
- **Hobby bat?**
- Pelota eta futbola. Gizona kenduta, etxean denak futbolistak dira.
- **Futbolista bat?**
- Stoichkov, jaleoa ipintzeko.
- **Jantzi bat?**
- Txandalak eta zapatilak.
- **Garizuma beteko duzu?**
- Niregatik egingo nuke bijilia baina familiar ez dugunez egiten...
- **Emakumearen eguna ospatuko duzu?**
- Igual zelebratuko nuke...
- **Zerbait gehitu nahi duzu?**
- Ea Zabalotegiko frontoia konpontzen duten...



POL-POL
TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO
TABERNA

☎ 76 01 51

ARREGUI, E.M.



AROSTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Pisua eta lonja salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ (945) 25 19 64.

Pisua salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garajea salgai Boni Laskurainen. ☎ 76 15 64.

Baserrria salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauetz).

Garajea salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 48 08.

Garajea saltzen da Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

DENETARIK

Musika **bateria** salgai. Ia berria. ☎ 76 08 58.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Braco aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Urrezko pultsera bat galdu dut **Miren** izenarekin. ☎ 76 40 50.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauetz).

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Sega Megadrive kotsola eta 2 joku salgai. 15.000 pezeta. ☎ 76 39 77.

Erabili gabeko **kuna** berri bat salgai. Osorik. ☎ 76 08 51.

Geace's paseorako bizikleta egoera onean salgai (ia berria). 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etzeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etzeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etzeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauetz).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Euskarazko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

CAMBRIDGE
EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

Azterketak eta datak

K.E.T. (Key English Test)	Ekainak 17
P.E.T. (Preliminary English Test)	Ekainak 17
F.C.E. (First Certificate English)	Ekainak 13
C.A.E. (Cambridge Advanced English)	Ekainak 15
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)	Ekainak 14

ATERKETA: Eibarko Armeria Eskolan

Cambridge Examinations Centre
Es-438




University of Cambridge
Local Examinations Syndicate

MATRIKULAK: MARTXOAREN 6tik 16ra

Informazioa eta matrikulak

Arrasate:	PARLANCE	77 06 83
	CIM-AHIZKE	79 01 32
Bergara:	ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH	76 03 53
Durango:	COMPUTIT ENGLISH INSTITUTE	620 20 20
Eibar:	ANGLO-AMERICAN	10 64 57
	INTERIDIOMAS	12 10 03
	LINK SCHOOL OF ENGLISH	10 39 59
	UKITZE	70 25 59
Elgoibar:	KEY ACADEMIA DE INGLÉS	74 30 44
	KENSINGTON SCHOOL OF ENGLISH	74 02 36
Ondarroa:	HOWDOY ACADEMY	613 43 26
Oñati:	A & M SCHOOL OF ENGLISH	71 61 37
	CIM-AHIZKE	71 60 00



"Entxufismoak eta norbaiten laguna izateak asko funtzionatzen du mundu honetan"

"Iaz Japonen harrera ona izan genuen eta une honetan beste erakusketa bat egitekotan gara"

RICARDO AZKARGORTA, PINTOREA

"Jendeak nahiago du kirola egitea pintura erakusketa bat ikustera joatea baino"

Ricardo Azkargortari (36 urte) txikitatik datorriko marrazkiak egiteko eta pintatzeko zaletasuna. Orain dela 10 bat urte, ordea, pinturaren munduan buru-belarri sartu zen. Astelehenen zabalduko du Kultur Etxean, azken urteetan egindako lana bilduz duen margo erakusketa.

- Lau urte dira Bergaran azken erakusketa bakarka egin zenuenetik.


- Bai, gehien bat kanpoan erakusten dut eta herritarrek zertan ari naizen jakin dezaten lauzpabost urtetik behin Bergaran erakusketaren bat egitea gustatzen zait.

- Jendea joaten al da erakusketak ikustera?

- Oso gutxi, gero eta gutxiago gainera. Bergaran, agian, beste herri batzuetan baino gehiago joango da baina, orokorrean, jendeak nahiago du kirola egitea.

- Zer erakutsiko duzu erakusketa honetan?

- Iaz, Japonen erakutsi nuen lana batez ere. Neurriari dagokionez erdi mailako koadroak eta estilo eta teknikari dagokionez,



"Ekonomikoki egoera onean dagoenak erosten ditu koadroak"

beladurak, kolak, metal kolorekoak... Bestalde, koadro gehienak diptikoak edota triptikoak dira

- **Kontaiguzu Japonen esperientzia.**

- Yoshiyasu Zenitany japoniarren bitartez, Bingen de Pedro, Pello Alberdi eta laurok erakutsi genuen lehen aldiz iaz. Harrera ona izan zuen gure lanak eta orain beste erakusketa bat egitekotan gara. Baina, Kobeko terremotoa izan zenean gure koadroak han ziren eta susto ederra hartu genuen.

"Gehien bat herritik kanpo erakusten dut, baina lauzpabost urtetik behin edo, herrian erakusketa bat egitea gustatzen zait"

Azken notiziek diotenez, koadroak eta erakusketa antolatu behar zuen galeriako arduradunak ondo daude.

- Zerbait lortzeko kanpora irten behar al da, bada?

- Aukera izanez gero, zenbat eta gehiago irten hobe. Laister Buenos Airesen erakutsiko dugu Bingen, Pello eta hirurok estatuko beste artista batzuekin batera.

- Pinturatik bizitzea posible al da?

- Nik gutxi batzuk ezagutzen ditut, ia inposiblea da. Galeriek, euren zirkulotxua izaten dute eta eurekin lan egitea oso zaila da. Entxufismoak eta norbaiten laguna izateak asko funtzionatzen du mundu horretan.

- Koadro bat saltzeko, marketinga ala pintatzen jakitea da garrantzitsuagoa?

- Inportanteena koadroa erostera doanari gustatzea da. Egia da, edozer gauza saltzeko, ideiak izan edo koadroak izan, marketinga oso garrantzitsua dela.

- Eta nork erosten ditu koadroak?

- Ekonomikoki egoera onean dagoenak.



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	10	6	5	1	0	32	9	
2. Madura	10	7	4	2	1	21	13	
3. Kabia	9	7	4	1	2	30	16	
4. Ufala	7	7	3	1	3	26	30	
5. Angiozar	7	8	4	1	3	30	38	
6. Bildurbarek	6	7	3	0	4	27	30	
7. Bar Canalejas	5	7	2	1	4	21	23	
8. Arloteak	5	7	1	3	3	20	25	
9. Ozaeta	5	8	2	1	5	19	31	
10. Mongatxurra	5	8	2	1	5	17	31	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Arkupe	14	8	7	0	1	62	25	
2. Usoa	13	9	6	3	1	25	15	
3. Pagomendi	11	9	5	1	3	33	30	
4. Ogizun	10	7	4	2	1	23	13	
5. Etxagi	10	9	5	1	3	40	36	
6. OH Zerezos	9	7	4	1	2	22	20	
7. Revienta	6	8	2	2	4	22	46	
8. Os Jardineiros	4	8	1	2	6	14	34	
9. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	
10. Uve Bikoitza	2	8	1	0	7	16	31	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. A Ze Flaxa	14	7	7	0	0	31	18	
2. Hartu Zamak	12	7	6	0	1	52	12	
3. Etxenagusia	10	6	5	0	1	26	18	
4. Nahik. Hooll.	6	7	3	1	3	19	22	
5. Eri	5	6	2	1	3	16	21	
6. Kriterium	4	6	2	0	4	19	18	
7. EH Biterrak	3	6	1	1	4	12	30	
8. Amozkibar	2	6	1	0	5	12	25	
9. Soropotroak	1	7	0	1	6	17	42	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Ezinleike	11	7	5	1	1	26	19	
2. Kirozaleak	8	5	4	0	1	32	12	
3. Iganekoak	7	7	3	1	3	41	27	
4. La Juve	7	6	3	1	2	27	35	
5. Nekrofilikos	6	6	3	0	3	30	25	
6. Shaktale	5	5	2	1	2	12	18	
7. Ari Ari	5	7	2	1	4	16	35	
8. Krai	3	8	2	1	5	24	29	
9. Const. Bergara	0	7	2	0	5	8	16	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Txipiron	12	7	5	2	0	27	8	
2. Los Txupeta	9	6	4	1	1	25	12	
3. Pata Negra	8	6	4	0	2	24	13	
4. Pikapiedras	8	6	3	2	1	22	22	
5. Labegarieta	5	7	2	1	4	33	32	
6. Aldoka Maldoka	5	6	1	3	2	24	29	
7. Patxaran Team	3	7	1	1	5	19	29	
8. Paok San Juan	2	7	0	2	5	11	40	

emaitzak

Mongatx.-Angiozar **0-1**

Ufala-Ozaeta **7-3**

Madura-Arloteak **2-1**

Kabia-Canalejas **5-3**

Usoa-Uve Bikoitza **1-0**

Revienta-Arkupe **4-13**

Kayak-OH Zerezos **3-6**

Pagomendi-Etxagi **8-2**

A Ze Flaxa-Sorop. **5-4**

Igand.-C. Bergara **1-0**

Krai-Ari Ari **2-7**

Patxaran T- Txipiron..... **0-1**

Paok-Pata Negra **0-1**

Aldoka-Los Txupeta **3-9**

partiduak

LARUNBATA

Barruan

9:00: Amozkibar-Etxenagusia
Antolaketa Batzordea

Kanpoan

12:00: Uve Bikoitza-Kayak OJ
Kabia
13:00: Errotagain-Kabia
Kayak Os Jardineiros

IGANDEA

Barruan

9:00: Shaktale-Kirozaleak
EH Biterrak
10:00: EH Biterrak-Kriterium
Nekrofilikos
11:00: Ezinleike-Nekrofilikos
Kriterium
16:00: Constr. Bergara-Ari Ari
Los Txupeta
17:00: Los Txupeta-Pikapiedras
Aldoka Maldoka
18:00: Pata Negra-Aldoka
Nahikari Hoolligans
19:00: Eri-Nahikari Hoolligans
Hartu Zamak
20:00: Hartu Zamak-A Ze Flaxa
Eri

Kanpoan

9:00: Madura-Ozaeta
Revienta
10:00: OH Zerezos-Revienta
Mongatxurra
11:00: Arloteak-Mongatxurra
OH Zerezos
16:00: Canalejas-Bildurbarek
Ogizun
17:00: Arkupe-Ogizun
Bildurbarek OPEL/LAM

Taugres ikustera

Taugres Baskoniak eta Forum Valladolidek martxoaren 18an Gasteizen jokatu duten partidua ikustera joateko autobusa antolatu nahi da. Izen-ematea martxoaren 10era arte izango da zabalik Dixula eta Urrats tabernetan.

Igerilekuak itxi egingo dira astelehenean

Udal igerilekuak itxi egingo dira astelehenean, martxoak 6. Lau bat egunez itxita izango dira ohizko garbiketa orokorra egin ahal izateko.

Frontoiaren errentari berriak

Larunbatean 11etan Udalak eta Eskualdeak Frontoiko errentaren kontratu berria sinatuko dute Kultur Etxean.

Futboleko lehen jubenil taldeak lider postuan darrai

Fernando Oregiren ekipoak bigarrenaren kontra jokatu du astebukaeran Aretxabaletan

Bergara K.E.ko lehen mailako jubenil taldeak lider postuan jarraitzen du aurreko astebukaeran, Ipintzan, Burumendiri 2 eta 1eko emaitzarekin irabazi ondoren. Golak Igor Alberdik eta Ion Gallastegik egin zituzten.

Fernando Oregik entrenatzen duen taldeak 22 partidua jokatu ditu orainarte eta horietatik 19 irabazi, 1 berdindu eta gainontzeko 2ak galdu egin ditu. Bergarak 2 puntu ateratzen dizkio 2. postuan dagoen Aretxabaleta taldeari eta aste honetan bi taldeak izango dira aurrez aurre Aretxabaletan. Bergararrek aukera haundiak dituzte igoera lortzeko.

Oregi pozik azaltzen da bere taldea egiten ari den jokarekin; "taldea oso sendoa da lehen guztietan. Gainera kon-




Lehen mailako jubenileko hamaikako bat aurtengo denboraldian.

tutan izan behar da zenbait jokalaria lehen urtez ari direla jubeniletan. Hasieratik oso erantzun ona eman dute guztiek eta akoplamendua inolako arazorik gabe egin da".

Bestalde, Pablo Ga-

llastegik zuzentzen duen bigarren mailako taldea igoera fasea jokatzen ari da. Lehen partidua galdu ondoren, astebukaeran 2 eta 1eko emaitzarekin irabazi zioten Aierru taldeari Ipintzan jokatutako partiduan.



ESKAINITZA BEREZIA!!

Odol emaleen aldeko pelota jaialdia ostiralean frontoian

Odol Emaleen Elkartearen aldeko pelota jaialdia izango da gaur gaueko 10etan Bergarako Frontoian.

Lehenbizi, alebinetan Iñarra III. eta Iñarra IV.ak Agirrezabal eta Larrañagaren aurka jokatuko dute. Ondoren banakako partidua izango da Otaegi azpeitiarra eta Muruamendiarrak antzuolarraren artean eta, azkenik, Barberito-Arroyo eta Berraondo-Apeztegia bikoteak izango dira aurrez aurre. Odol Emaleen Elkartek esker-eman nahi dizkie jaialdi honen antolaketa kolaboratu duten guztiei, hala nola Oxirondo elkarteari, Bergarako Udalarari eta he-




Odol emaleen alde hiru pelota partidu jokatuko dira Frontoian.

rriko hainbat enpresari. Sarrerak 600 pezetatan jarriko dira salgai.

Antolatzaileek dei egin

nahi diete herritarrei gaur gaueko jaialdian parte hartzeko. Berogailua piztuko dela gogoratu nahi dute.



Muruamendiarrak Oruesagastirekin jokatuko du.

Pelota partiduak igandean

Deba Arroko txapelketako pelota partiduak jokatuko ditu Bergara K.E.k Soraluzeren aurka igandean goizeko 10.30etatik aurrera Udal pelotalekuan. Lehenengo, eskolarteko adiskidetasunezko partidu bat jokatuko dute Iñarra I.a eta Leturiak Bolinaga eta Arejolaleibaren aurka. Ondoren, infantil, jubenil eta senior mailetako partiduak jokatuko dira. Bergararren aldetik infantiletan, Redondo eta Martin arituko dira. Jubeniletan, ostera, Osa eta Gutierrez eta Seniorretan, Muruamendiarrak eta Oruesagasti. Soraluzetik, Muguruza, Garcia eta abarrak etorriko dira.

KARTELDEGIA

► Futbola

Bergara-Anaitasuna
Preferente maila.

Igandea, 16.45. Agorrosin.

Bergara-Aitzgorri

Lehen mailako kadeteak.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

Bergara-Eibartarrak

2. mailako kadeteak.

Igandea, 10.00. Ipintza.

Bergara-Elgoibar

Lehen mailako infantilak.

Larunbata, 15.45. Ipintza.

Bergara-Elgoibar

2. mailako infantilak.

Igandea, 11.30. Ipintza.

► Eskubaloia

Bergara-Durango

Kadete neskak.

Larunbata, 17.45.

Bergara-Mundaka

Jubenil neskak.

Larunbata, 19.00.

Bergara-Usurbil

Jubenil mutilak.

Igandea, 12.15.

Guztiak Kiroldegian.

► Saskibaloia

Bergara-Santo Tomas

Jubenil neskak.


Larunbata, 12.15.

Bergara-Alde Zaharra

Senior mutilak.

Larunbata, 16.15.

Biak Kiroldegian.



- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olio, esnea, lejiak...
Martokua, 32 ☎ 76 45 94



Onddio be Karnabaletan?

Erreratuko ume-kuadrilliak, bere bizitzako laugarren karnabala ospatzen dihardu. 1981ian etaratako erretratu honetako taldian; txanogorritxu, pailazuak, indixo eta indixak, barkeruak, mosketeruak eta beste asko dare, Aranzadi Ikastolako gela baten.

Ezkerretik eskumara:

Atzeko ilaran: Jon Zabaleta, Ainara Garitano, Asier Lamikiz, Eneko Beistegi, Harkaitz Elkoro, Harkaitz Irazabal, Ion Arrieta, Asier Balzategi, Jone Moñux, Iban Biain.

Aurreko ilaran: Irati Saez, Igor Alberdi, Argiñe Muruamendiaraz, Aitziber Etxeberria, Maite Otaola, Bidatz Alustiza, Asier Latorre, David Rodriguez, Asier Diaz de Zerio, Gorka Gonzalez.

Aurre-aurrian: Lorea Orgaz, Gaizka Jauregi.

Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua
LOKARTU
 Koltxoi-denda
 Orain SORALUZEN

ORTZI
 erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
 130 lagunentzako jantokia
 ☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA
 elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

OXIRONDOKO AZOKAKO

jokua



*denetarik
aurkituko duzu...
kanpora joan
barik*



ARRAINDEGIA
German Lete ☎ 76 02 44

ARRAINDEGIA
La Bermeana ☎ 76 15 16



MOXAL HARAGIA
Lurdes Barrutia ☎ 76 12 17

ARANTXA
Bertako produktu bereziak
☎ 76 04 86

HARATEGIA
Bixain ☎ 76 26 98



*zuzen-zuzeneko
tratua*



IZOZKIAK
Izotz ☎ 76 56 91

OILASKOAK-URDAITEGIA
Mertxe ☎ 76 54 67

HILARIA ANTJUSTEGIK jaso du hil honetan LOURDES BARRUTIAK emandako saria. Larreko hilean behorkumeari nola deitzen zaion galdetzen genizuen eta erantzuna BEHORKUMEA zen. HILARIAK erantzun zuena jarri du eta argazkian, LOURDES BARRUTIAren eskutik saria jasotzen ikus dezakezue. Zorionak!!



OXIRONDOKO
AZOKA
Nahi duzun beste!!



ARAZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxe: 76 54 91

**ZABALDU BERRIA!!
ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

Altzarien dekorazio eta erakusketa

- *Betiko leihoak gaur egungo teknolojiari egokituta*
- *Ez hotzik, ez zaratarik, ez urik!!*
- *Leiho termoakustikoak*
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK



ARANZADI IKASTOLA

2 urtetik 18ra arteko heziketa eskaintza

- **Haur Hezkuntza** •
- **Lehen Hezkuntza** •
- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** •
- **BBB eta UBI** •

**2 urtetik 8. mailara arteko aurrematrikula epea:
MARTXOAREN 1etik 17ra**